

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Mugikorretarako aplikazio batek hondakin birziklapena erraztuko du

Fase pilotuan izanik, ReciclApp aplikazioak zalantzak argituko ditu, hondakinak uzten lagunduko du eta mankomunitateen eta herritarren arteko komunikazioa zabalduko

Viernes, 19 de junio de 2015

Fase pilotuan dagoen [mugikorretarako aplikazio](#) batek (app) hondakin birziklapena erraztuko du. Hala, ReciclApp-BirziklApp-ek zalantzak argituko ditu, hondakinak uzten lagunduko du eta mankomunitateen eta herritarren arteko komunikazioa zabalduko.

Aplikazioa Android sistema eragilerako garatu da lehen fase pilotuan, eta bigarren fase batean, iPhone-rako garatuko da; guztira, egun erabilitako telefono mugikor guztien % 95 dira.



Lehen ilaran, ezkerretik eskuinera: Blázquez, Eciolaza, Cereceda eta Sola. Atzean, mankomunitateetako ordezkariak. Lehen planoan, kanpainaren irudia.

Nafarroako Gobernuak abian jarritako ekimena gaur aurkeztu dute Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamenduko egoitzan, Ingurumen eta Uraren jarduneko zuzendari nagusi Andrés Eciolazak; [GANASA](#) (Nafarroako Ingurumen Kudeaketa) sozietate publikoko kudeatzaile Andres Solak, iparraldeko [Ecoembes](#)ko ordezkari Fernando Blázquezek eta GANASAKO teknikari Elena Cerecedak.

ReciclApp-ek Nafarroako gizarteak oraindik zalantza batzuk dituen alderdi jakin batzuetan egin nahi du azpimarra, biztanleriaren Ohitura eta Jokabideen Azterketako datuek adierazten dutenez (urtero Ecoembesek egiten du). Hala, argitu nahi da zer hondakin zein edukiontzitan utzi behar den; berariazko ekipamenduak aurkitzen uzten du, puntu garbiak, olio, pila edo arroparen edukiontzia, esaterako, edo mankomunitateak eskaintzen dituen beste zerbitzu batzuk; herritarrak beren mankomunitatearekin harremanetan jartzen uzten du ere, sor daitezkeen gorabeherak konpontzeko. Gainera, hondakinak nora doazen esaten du, hondakin birziklatze-prozesua ikus-entzunezkoen bidez erakutsiz.

San Markosko Mankomunitateak (Gipuzkoa) proiektu honetan lagundu du, antzeko aplikazio bat utziz; hura oinarri modura erabili da

Nafarroako aplikazioa garatu eta egokitzeko.

ReciclApp fase pilotuan aurkeztu da, eta aplikazioaren zenbait alderdi aztertuko dira; horrekin batera, erabiltzaileekin zer komunikazio dagoen aintzat hartuko da, hala, beharrezko hobekuntzak egin eta azkenean herritar nafarren beharrei egokitutako tresna bat izan dadin. Informazioa euskaraz eta gaztelaniaz dago, eta Nafarroako udalerrri bakoitzari egokituta dago, menua erabiliz erraz alda daitekeena.

Tresna hori egin da, Nafarroako Gobernuak, alde batetik, Hondakinak Kudeatzeko Sistema Integratuekin, Ecoembes. Ecovidrio, dituen hitzarmenen esparruan; bestetik, aparatu elektronikoa nahiz elektronikoen hondakinak kudeatzeko sistema integratuen erakunde kudeatzaileekin dituen hitzarmenen esparruan:

[Ambilamp](#), [Ecoasimelec](#), [Ecofimática](#), [Ecolec](#), [Ecolum](#), [ECORAE](#), [Ecotic](#), [Europako Birziklatze Plataforma-ERP](#) eta [Tragamóvil](#), [Nafarroako Ingurumenaren Kudeaketaren](#) bidez garatzen dena, eta Nafarroako hondakinaren mankomunitateen laguntza duena: Goi Araxes, Bidausi, Bortzirriak, Iruñerria, Zangozako eskualdea, Zaraitzu, Irati, Mairaga, Malerreka, Mendialdea, Montejurra, Goi Erribera, Erribera, Sakana, Izarbeibar eta Baztango Udala.

Nafarroak Estatuko batez bestekoa 10 puntutan gainditzen du

2014ko azken datuen arabera, Nafarroako herritarrek beirazko ontzien 15.000 hondakin-tonatik gora birziklatu zuten iglu motako edukiontziaekin, hau da, batez beste 93 ontzi baino gehiago biztanleko

Nafarroak, hala, 10 puntutan gainditu zuen Estatuko batez bestekoa, beirazko ontzien 24,4 kilo birziklatuz biztanleko; adierazle horren hirugarren komunitatea da, Balear Uharteak eta Euskal Autonomia Erkidegoaren atzetik.

Ontzi arinetan (plastikozko ontziak, latak eta brikak), 2014an, herritar bakoitzak 19,4 kilo sartu zuen batez beste edukiontzi horian, eta kartoizko eta paperezko ontzietan dagokienez, 34,2 kilo edukiontzi urdinean. Edukiontzi horian gaizki sartutako hondakin-kopurua % 19,5 izan zen, aurreko urtean baino hiru puntu gutxiago eta Estatuko batez bestekoa baino hamar gutxiago. Datu horiek Nafarroa Espainiako buru jartzen dute ontzi arin, paper eta kartoizko ontzien birziklapenean.

Bestalde, 2013ko aparatu elektriko eta elektronikoen hondakinaren gaikako bilketak gora egin zuen 2012arekin alderatuz; 3,82 kilotara heldu zen biztanleko eta urteko; Estatuko batez bestekoa, berriz, 3,20 kilo da biztanleko eta urteko. Zenbait maila batzuetan, informatika eta telekomunikazioetako ekipoetan, esaterako, argi-aparatu eta kontsumoko elektronikoen (irradiak, telebistak, bideokamerak), bilketako helburuak bete egin ziren, baina, oro har, ez zen 4 kiloko lege-helburura heldu (biztanleko eta urteko).